

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako bi ikaslek urrezko domina eta brontzezko domina lortu dituzte LHko 'Spainskills 2011' olinpiadetan

Beste bi ikaslek bikaintasunari emandako dominak jaso dituzte

Martes, 12 de abril de 2011

Diego Escribano Ott Corellako Arte Eskolako ikasleak asteburu honetan urrezko domina irabazi du Diseinu Grafikoaren espezialitatean

[Lanbide](#) [Heziketako](#)
['Spainskills 2011'](#)

[olinpiadetan](#). Hain zuzen ere, olinpiadak joan den larunbatean, apirilak 9,

amaitu ziren Madrilan. Gaur egun Erasmus beka batekin ikasketak Londresen egiten dituen ikasleak, Laura Sáez irakaslearen tutoretzapean, Espainia ordezkatzeko du 'Worldskills' munduko txapelketan, datorren urrian Britainia Handiko hiriburuan egingo dena.

Bestalde, Daniel Carroza Lizarbe Lizarrako Zentro Integratu Politeknikoko ikasleak, Jesús Zubicoa eta Javier Esquiroz irakasleen tutoretzapean, lehiaketa berean brontzezko domina lortu du CAD Produktu Industrialaren Diseinuaren espezialitatean.

Nafarroako beste bi ikaslek bikaintasunari emandako dominak jaso dituzte

[Hezkuntza](#) [Ministerioak](#)

sustatutako lehiaketan lortutako puntuazio handiari esker. Bata Erika Lagota da, Tuterako ETI Zentro Integratu Politeknikoko ikaslea, lle-apaingintza espezialitatean lehiatu dena Susana Lecumberri



Diego Escribano Diseinu Grafikoaren urrezko dominaren irabazlea podiumean.



Ezkerretik eskuinera, Erika Lagota, Daniel Carroza, Diego Escribano, Rubén Echeverri, Rubén Medrano eta Javier Vicente.

irakaslearen tutoretzapean. Bestea Rubén Medrano da, Burlatako Ibaialde Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikaslea, Jatetxe eta Taberna Zerbitzuaren modalitatean lehiatu dena, Gabriel Angós irakaslearen tutoretzapean.

Nafarroak LHko olinpiaden 33. edizioan sei 'skill' edo espezialitatetan parte hartu du. Aipatutako lau ikasleez gain, Javier Vicente Panadero Iruñeko Virgen del Camino LHko ikasleak instalazio elektrikoaren espezialitatean parte hartu du, Jesús Esteve eta Oscar Ojer irakasleen laguntzaz; eta Rubén Echeverri Iruñeko San Juan Donibane BHIko ikasleak Arotzeria modalitatean parte hartu du, José Ángel Urtasun eta Patxi Garisoain irakasleen tutoretzapean.

Larunbateko sari-banaketaren aurretik, aurreko astean parte-hartzaileek haien proiektuak garatu eta trebetasun teknikoak jendaurrean eta komunikabideen aurrean erakutsi zituzten. Saio horiek txapelketako web ofizialean transmititu dira. Lehiaketa ikasleen motibazioari eragiteko eta probetan parte hartzen duten zentroyen artean prestakuntza-esperientziak trukatzeko pentsatuta dago.

Lanbide Heziketaren sustapena eta zabalkundea

Olinpiada horiek Madrileko IFEMA azoka-esparruan egin dira apirilaren 4tik 9ra. Bi urterik behin hainbat autonomia-erkidegotako 23 urtetik beherako ikasleak biltzen dituzte. Bakoitzaren lanbidean onenak izateko eta urrezko domina lortzeko lehiatzen dira, modu horretan Espainia ordezkatzeko dute-eta 'Worldskills' munduko txapelketan. Aurten txapelketa Londresen egingo da urrian.

Nafarroak 'Spainskills' lehiaketaren azken bi edizioetan parte hartu du, 2007an hiru espezialitatetan eta 2009an bederatzire espezialitatetan. Azken olinpiadetan, Laura Alcáraz López ile-apaingintzako espezialitatean Foru Komunitatea ordezkatu zuenak, Tuterako ETI Zentro Integratu Politeknikoko Ile-apaingintza zikloko ikasleak, zilarrezko domina lortu zuen eta Espainia Europako 'Eurosills' olinpiadetan ordezkatu zuen, Lisboan, joan den abenduan.

Espainiak bazkide moduan parte hartzen du Worldskills erakundearen. 50 herrialdetik gora biltzen ditu eta xedea LH sustatzea eta zabaltzea da.